ZER IKUSIRIK BAI ALA EZ? (II)

Orokorrean, harri gogorrak eta higagaitzek (adibidez, granitoak, kareharriak...) erliebe nabarmenak ematen dituzte, hau da, mendi altuak eta mendi zorrotzak. Harri bigunagoek edo higatzeko errazek (adibidez, buztinitak, margak...), ordea, haranak eta zokoguneak ematen dituzte.

Jarraian dituzu Txindoki mendiko ingurunea, mapa, satelitetik ikusitako irudia eta dagokion mapa litologikoa (dauden harriak adierazten dituena):

Zonaldeko mapa.



Erliebea eta Harriak

03. jarduera

Satelitetik ateratako irudia.

Mapa litologikoak (Bertan dauden harriak adierazten duen mapa)



Erliebea eta Harriak

03. jarduera

- Jarri arreta, alde batetik, Zaldibia eta Amezketa herrien eta Txindoki mendiaren altitudean (itsas-mailarekiko altuera) eta bestetik, leku horietan dauden harrietan.

Ba al dute zer ikusirik erliebeak eta harriak? Aterako al zenuke ondorioren bat?

_____

_____

_____

_____

_____

Bururatzen al zaizu arrazoiren bat gertaera hori azaltzeko?

_____

_____

_____

_____

_____

Orain, azalduko al zenuke arrazoiak emanez, nolakoa den zure inguruko erliebea eta zergatik den horrelakoa?

_____

_____

_____

_____

_____